Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Rufino Arbelaitz Sarasola

Oiartzun, Gipuzkoa
(1924-2014)



Aurkibidea

Biografia



Umore handiko gizona genuen Rufino; agudo hasten zen bertso-kantari eta gertakari xelebreak kontatzen. Bertsotarako zaletasuna aurretik zetorkion. Bere osaba omen zen oso bertsozalea; ez zen alferrik Zurkoko Kazkazuri bertsolariaren iloba. Rufinok bertso asko zekizkien buruz; edozer gauza kontatzen zuenean, bertso batekin lagunduta biribiltzen zuen. Altzibarko Olalde baserrikoa zen Rufino. Altzibar bera eta Olalde ingurua beti izan dira mugimendu handiko guneak. Hainbat lantegi sortu dira bertako urak aprobetxatuz: bi errota, arrain-fabrika, paper-fabrika... baita auzotarrak iturri gabe utzi zituen edari-fabrika ere. Horien denen berri eman zigun Rufinok, elkarrizketan zehar.

Zintak

OIA-039

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Data**: 2007-07-09
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-040

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Data**: 2007-07-09
- **Iraupena**: 61 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-041

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Data**: 2007-07-09
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-042

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Carrere Zabala, Joxe Mari - Lardi, Ane - Lardi Landa, Jose Luis
- **Data**: 2007-07-09
- **Iraupena**: 20 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-046

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-07-26
- **Iraupena**: 59 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-047

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-07-26
- **Iraupena**: 57 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-048

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-07-26
- **Iraupena**: 31 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

Pasarteak

1. Ile luzea, ezin

- **Erref**: OIA-039/002
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:02:05. **Bukatu**: 00:05:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Rufinori noiz jaioa den galdetu diogu: 1924ko martxoaren 20an. Rufino urte askoan Errenterian lanean aritua da. Gogoan du garai haietan ilea luzea zutenei moztuarazi egiten zietela. Errenteriako pertsonaia ezagun baten berri eman digu: Txarlot. Mekaniko ona zen eta asmatzaile gaitza. Ez zit gotzen. Mekanikotzan.

Transkripzioa
- Doktorzikiñ ez zen, bestia. Bazen hor beste tipo bat Errenteiyan. Juakina, zein zen, zea, Errenteiko ze hoa... Estilo... Illia haundiya... Oiañ illia haundiyakin ibiltzen ga, 'ta ordun illia haundiyakin harrapatzen zutenin, hartu 'ta ayuntamentun Errenteiyan moztu itten ziyoten illia! Bai. Zein zen hoa? "¿Qué estilo quieres que te cortemos el pelo?" 'ta "estilo golfo" "y ¿Qué estilo es?" "y el estilo que lleva..." Errentiko aguazillan jefia...

- Kastor.

- E?

- Kastor.

- Kastor, bai, Kastor. Estilo hua golfotaz besti harek. Zein zen zea hoa, bitxo hua? Kriston bitxua zen! Joe, mekanikotzan ta hola , papelera 'ta zeatu 'ta. Honek 'e izautzen zun hoa.

- Igual izautuko nun.

- Joe! Potton saardoteira torri eun batin 'ta zea hortan, soziedadeko bettiko malda hortan mutikozkorrak hartu horren bizikleta 'ta bizikletan gidoiya okertu ziyoten 'ta geo belaunan tartin rueda hartu 'ta zuzentzen nahikua zen, e! Tak. 'Ta ez utzi. " Ez, ez ez, holaxe jongo naz ni, 'ta holaxe jungo naz" Hala Errenteira. Jo...! Errenteiyan 'e papeleran bestek arreglatzen ez makinik 'ta hoa eaman 'ta harrek arreglatu. Ui...! Ze izen zun harrek? Doktorzikiñ ez zen ba, Doktorzikiñ bazela bai, biño bestia zen hoi.

- Hua kaputxinotan ayeka hartan bizitzen zen. (...) Biño Gasparren goiyan, bazterrian bizittu zen.

- Zein zen hua? Ba! Igual da! Harrei itten ziyon... Joe, harrek iña izan ber zula, zea! Errenteiko (Errekatxalon) 'o motorran bat prepatu ari batekin itxea argiya jarri 'ta jarri zun gau berin itxiak eta denak erre! Bai. Argiya jarri zun zean... Jo 'ta denak erre!

- Harrek argiya jarri!

- Nongua zen fenomenu hoi?

- Errenteiyan bizitzen zen.

- Errentikua bertakua?

- Bai, bai. Errentikua. Ez zit gotzen ze izen zuk harek...

2. Soldata eskasa

- **Erref**: OIA-039/004
- **Iraupena**: 0:03:51. **Hasi**: 00:09:16. **Bukatu**: 00:13:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza

Laburpena:
Rufino 14 urterekin hasi zen Errenteriako Esmalterian lanean. 24 urte egin zituen bertan. Behin eskatu zuen soldata igoera, eta hala ere, ez zioten onartu. Orain dela 50 urte etxebizitzek zenbat balio zuten aipatzen du. Gaur egun baino askoz ere merkeagoak ziren, baina orduko soldata txikiak kontuan hartzen baditugu, orduan ere garestiak ziren. Hor etorri zit.

Transkripzioa

- 'Ta esmalteiyan aittu ziñan lanin ordun?
- Ni hogeita lau urtian bai.
- Zembat urtekin hasi ziñan?
- Hamalautan. Hamar errialekin esan dut ba. Euneko hamar errial 'ta hogei urte arte, zea, hiru pezta gehinekua, 'ta hogei urtetan duro batea. 'Ta hiru pezta eskatzen, irabazten nittun demboan diretoriri jornala eskatu niyon 'ta "que había que gara honores para aumentar el jornal. Que había que ganar honores" Mekauenlaletxe! Geo diretorin béan neskamikin ibiltzen zena 'ta biyek gelditzen giñan illunabarretan orduk sartzen. 'Ta imbentayua inta, hor Esmaltei ingurun urtitan iondu da Zabaleta, Lezokua. Ordun pintxe zon 'ta harrek eamata kalefaziyua. Paperak bota zittun 'ta gu han ai giñan bazterrin lanin 'o zean 'ta, jon 'ta paperak hartu 'ttugu 'ta mekauenlaletxe! Imbentaiyuk iñak. Presidente: Patrizio Etxeberria, Bizepresidente: Ajuria. Hirugarrena ez dakit zeiñ Sarasola 'ta ne artin: "ez duk ne osaba, nik Sarasola bait biño!" Zea, gastos: benga denak paperan (ordenatu) 'ta paperin tantos. Y gananzias: dieciocho millones quinientas mil pesetas! Ate 'zizu kontuk oain dela hirurogeita...
- Hirurogei...
- Hirurogeita bost urte 'ro zea! Dieciocho millones, que no ganaba la fabrika! Mekauensuletxe! Geo han heldu da Pedro Oteiz. Hoi 're kas... Jode! Hogeita hamabost urte pasia zen Esmalteiyan 'ta san zin, hasi nitzen paperak itten aittu zen dembuan: "hobe zenuke bihar bertan jongo baziñake ne lehengusu bat ieltsero aitzen dena bada be kontura, 'ta harrena 'ta gehiyo irabaziko zenuke! 'Ta. Geo hor torri zitt: "Rufino, zea diretoriri omenajia ittia pentsatu dugu hombeste urte 'ttu 'ta, zea bota ber dia hiru duro 'ro!" Jode! Kusten 'zu, que había que ganar honores! Harrek ez du nekin honoreik irabazi! Nik zeaik itteko! 'Ta " bale, bale." Ez niyon man! Dirua man harrei? Mekauenlaletxe! Rikardo Bengoetxea. Akaso Emilio izautu igual ingo zenun zuk, biño Rikardo Bengoetxea zen jefe... Zeakua, fabrikakua 'ta gu almazenin aitzen giñan 'ta hiru laun, hiru geldittu gu 'ta. " ¡Joe, esos tienen cojones, e! No han echau dinero!" "¿Dinero?" Béak asko patu bazun lenotik!
- 'Ta gaiña mixeiy hua irabazi, ikusi zembat ganantzi zittuzten 'ta miña man ber du, e!
- Jode! Orduko hemezortzi milloikin Oiartzun erdiya eosiko zen!
- Aixa!
- E?
- Aixa!
- Jode! Seberonia. Ate 'zu kontuk! Gu uan dela berrogeita hamar urte jon berriiyak dia ezkondu giñala, 'ta Ualdetxon Seberonia zea, Intxixu, Intxixun aurrin don itxi hartan, setenta mil pesetas pisua! Zembat dembun iondu zen salgai! Ate 'zu kontuk!
- Ni akortzen naz, diru hoi kristona!
- 'Ta zea, 'ta hoa zea... 'Ta sesenta mil pesetas hor eondu zenin bazin zeakuk... Esmalteiyan, zea haik... Berrogei urte 'o gehiyo. Ate 'zak kontuk zeiñek eosiko zin! Mekauenla! Diru hoikin, Oiartzunen erdiya aixa!
- Karo, biño, karo suelduk 'e holokuk izaki! Itxiak 'e garesti ordun!
- Hoixe!
- Orduko bai!
- Orduko bai!
- Gue osaba Juan Mai, Katalintxoko Juan Mai, honek izautuko zun. Harrek: "joe hamalau mila duro, ez littekek Ugaldetxon etxia patu Errentira lanea joteko! Toki errea jon dia! Hamalau mila... setenta mil pesetas...

3. Esmalterian enkargatu

- **Erref**: OIA-039/005
- **Iraupena**: 0:04:23. **Hasi**: 00:13:07. **Bukatu**: 00:17:30

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Errenteriako Esmalterian hogeita lau urte egin zituen lanean. Enkargatu zegoela, nagusiz aldatu zen lantegia, eta bera baino gutxiago zekien bat jarri zuten berarekin enkargatu. Bere urteetako lana baloratzen ez zutela ikusita eta hainbeste urtean lanean arituta zeukan soldata txikia kontuan hartuta, Esmalteria utzi eta oxigeno enpresan hasi zen lanean. HIKA.

Transkripzioa
- Toki errea jon dia hamalau milla pezeta, "sestenta mil pesetas"!

- ...joten zen ba lanea! Ugaldetxotik!

- Bai, biño itxian jabe in gabe geldittu. Esmalteiyan nik hoeita lau urte pasa 'ta enkargatua nun almazenian, 'ta iraazten nittun "dos mil doszientas pesetas".

- Hillaetin?

- Hillin, jornala.

- E! Enkargatu batek!

- 'Ta (Pabli) Martinez, han Martinezen semik. 'Ta Martinez eondu zen hogeita hamabost urtian almazenin, 'ta harrek alde iñ in zun. 'Ta harrek alde iñ in zun demboan, Alonso, Anatorio. Famoso zea, Errenteiyan bazen... Esmalteiyan beti zapel gorriyakin 'ta zea, reketin dembun 'ta joten zena 'ta hoa pasa! Mekauen Vitoiyak hartu zun Esmalteiya. Vitoitik karri zuten katxarro pilla bat 'ta pillatan denak jarri nittun 'ta. Nota hartu nun nik ze karri zittuzten 'ta. Harrek in zun... Xiriake nola Oiartzunen. Xiriake hemen bizi baizen 'ta rebisatu zittun Xiriakekin 'ta ofizina jon. 'Ta ofizinatikan torri zen 'ta: "Rufino, ¡Aquí faltan estas piezas y!" "¿Qué piezas faltan?" Papera nik han eskuan. "¡Apuí están esas piezas, e?" 'ta diretorikin torri zen. Vitoiko diretorikin. 'Ta: "¡Has guardau!" "¡No he guardau! Tú antes de ir al oficina tenias que haber revisau conmigo, no con ése. ¡Tenías que haber revisau!" 'Ta biyek hor armatu dugu. 'Ta Vitoiko txoferra han zen "Jo, si eso arma en Vitoria le despachan enseguida." 'Ta beste launak: "¡Sí, como ese es encargau él tambien, e!" biyek eta: "¡Cállate, que te voy a enseñar yo a tí!" " ¿Ya sabes tú para enseñar? Primero tienes que aprender, ya llevo yo veinticuatro años en el almacén y ¿Tú has venido ahora y me vas a enseñar tú a mí? " Vitoira jun 'ta zortzi eun 'o pasik zittun 'ta nombatte han kristona ikasiya izango zen! 'Ta ni seittun jon ofizina 'ta: "kontua nei!" 'Ta: "Kontua zeba?" 'ta: "hola 'ta hola" "Jo, Rufino, ez zeatu! " 'Ta "ez zeatu! Ni ez naz horren bazterrin aiko, e! 'Ta kontua nei prepatu laumbateko!" ' Ta ez ziten prepatu 'ta ni gehiyo jon ez! Hau biali nun azkeneko jornalan billa! 'Ta geo Oxijenutan sartu in nitzan 'ta Oxigenutan sartu 'ta, zeatu ziten: "joe!" fabrikan aitzen zen batek, la Fajek, Ergoingua. La Fajek: "joe, Rufino, in duk astaki erra, e! Enkargatua euki 'ta, Esmalteitik alde ittia! 'Ta: "astakeiya ingo nun, biño ni arron kontentu no! Errelebun lanin 'ta itxeko lanak itteko!" San niyon: " ba al dakizu zembat iraazten nun nik hillin? Bi milla 'ta berrehun pezta eunin, 'o... hillin irabazten nittun! 'Ta oaiñ Oxigenutan ba al dakizu zembat iraazten duten? Zortzi!" "Mekauendios!! Nik 'e alde ingo nikek!" Eskerrak alde in nula, e! Difentzi erreko jornala da, e! Bi 'ta

berrehunetikan zortzi milla pezta!

- Joe!

- Karo 'ta jendik usteko zuten ondo kobratzen zenutela! Fabrika zelako 'ta! Biño...

- Enkargatua 'ta bi milla pezta...

- Segurua 're juxtu juxtu juxtu patzen zuten!

- Geo nik inutillidadikin 'o belaunetatikan geldittu nitzan, a los cincuentayseis años geldittu nitzan. 'Ta osaba itxekua 're han ibiltzen zena zen neria, itxekua 'ta Juan Mai 're bai 'ta biyek erretirua hartu 'ta biziko zortzi milla pezta hillero 'ta zeak, Juan Maik hamabi milla pezta 'ta osabak: "Joe, edadi hortan jubilatu 'ta ez du erretiro haundiyik izango! Nik hombeste urtian ibillita hamabi milla pezta..." Nik san niyon: "nik ez 'ttut zuk haimbeste urte, biño hogeita hamabi iraazten 'ttu nik e! Errenteikua!" 'Ta harrek hamabi, nik hogei milla pezta gehiyo! Maldiziyoka han alde in zun! Gutxi kotizatua, biño Oxigenutan kristona patzen ziten jornala, e! 'Ta noix-nahi propinak man, e! Difentzi erreko lanteiyak bazin, e! Joe! Eskerrak alde in nula nik! Beste alu harrekin hasertuta bestela! Bestela han ustelduko nitzan!

- Harrek in zizun bentaja!

- Apuntatzen ai al da hoi? Ez!

- Dena jartzen ai al da hoi? Joe!

- Biño hua ez da biziko?

- E?

- Vitoiko hua uaiñ ez da... 'O gaztegua al zen hua?

- Ez, zarruo zen, biño geo uste 'ut hanka moztu 'ta denak in zizkatela! Seittun miña harrapatu 'ta!

- (...) hanka moztu!

- Hanka moztu! 'Ta geo osaba han ibiltzen zena béakin 'ta: "hi! Hanka moztu ziotek zeai, Anatorioi 'ta..."

4. Errenteriako Esmalteria

- **Erref**: OIA-039/008
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:23:10. **Bukatu**: 00:26:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Errenteriako Esmalterian eltzeak egiten ziren. 2.000 artikulu ezberdin egiten zituzten. Estatu guztira bidaltzen zituzten. Langileei etxean behar zituzten eltzeak ematen zizkieten, baina zuzendariak sinatu behar izaten zuen, eta askotan ez zuen ematen eskatutako guztia.

Transkripzioa
-'Ta ze lan itten... Karo lendabiziyan lanin hasiko... Esmalteiyan enkargado geo, biño ze... Pintxe 'ro nola hasi ziñan?

- Almazenin! Pintxe, pintxe ez zen difentzen. Amakin bat katxarro biali 'ta amakin bat pakete in bai. Pf! Benga paketik in, 'ta benga paketik in! (...)

- 'Ta noa bialtzen zen 'ta gotze al za?

- Jesus Maria! Espaiñi guzira! Denea! Pilla bat bai.Oaiñ...

- Ze itten zen? Esmalteiyan ze itten zen?

- Ze itten zen? Itxian ber den katxarrei guziya! Artikuluk uno potua zen, dos kazula, tres tapa, kuatro eltzia, zinko tapa, seis eltzia, siete kazua... Uandik gouan dakazkit, e! 'Ta mil... Dos mil artikulos bazin 'ta zea!

- Difentik, e?

- Joe, hoixe. Bazin katxarro pilla erra han, e!

- Oriñal pilla errak 'e izaten zin ba!

- Bai, oriñalak bai pilla erra! Josus...!

- Pilla erra bai.

- Boryonyo taberna Errenteiyan zean aurrin du, Maalengo ermitan aurrin. Oain ez dakit taberna don.

- (...)

- Maalengo ermita aurrian zen Bordiñon taberna leno 'ta Arruabarrenan 'ta garajik eta. Bordiño guekin aitzen zen. Erdi bertsolai holokua 'ta harrek hala saten zun: "biño oñalak kantidadia eamaten zuten (...). Ez duk posible, hoi itte itek nomatte arratsin betetzin (nik) leiyotik kampo bota. Beste... Oriñala bazter guzita! Jo! 'Ta platera 'ta palangana 'ta holokua. 'Ta oaiñ ikusten 'zu, oaiñ zakurrai jartzeko 're nazka maten 'u katxarruk, e! Ikusita, e! Joe!

- Biño ordun (...)

- Ordun! Ordun, joe, ba al dakizu zembat katxarro! Zuk urtian pedido bat in ber zenun fabrikan itxeko 're, 'ta leno san 'uten zerrenda antijukin harrek... Harrei man ber zeniyon. Itxeko ber zinittunak diretoriai 'ta firmatuko zizun, biño askotan prezisuna igual urratuko zizun. Trik!(...) Eman ez!

- Biño arpegira beitu gabe, e! Mutur luze batekin, e!

- A! Etxeko... Etxeko eman langilliri eman itten zen?

- Itxeko...

- Harek firmatu in ber zun.

- A!

- 'Ta zuk eskatzen baldin bazeniyon, kompaziyo batea, kazulak hasi hamar zentimetrokotik eta bazin berrogeita hamarreaiñokuk! Haundina berrogeita hamarrekua zen! 'Ta zuk eskatzen baldin bazenun haundi xamarra, trik trak! Urratu ingo zizun! Itxian bankete bat 'o jartzeko ber baldin bazenun, ematen ez!

- Oriñalak, hua mango zun!

- Bi esku ezkio, igual urratuko zun bat, e!

5. Lantegiko errazionamendua

- **Erref**: OIA-039/010
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:26:45. **Bukatu**: 00:28:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza

Laburpena:
Errenteriako Esmalterian lanean ari zela, langileei errazionamendua ematen zieten. Aza eta moniatoaz gogoratzen da Rufino. Lantegian, gordean, patata errea jaten zutela ere gogoan du.

Transkripzioa
- Biño, txandaka aitzen giñan, e! Batzuk ale batzuk 'ta bestik bestia.

- Gu, zea... nakila nik, zembat, zer zen... Pentsa 'zu ze kartzen zun goseti hartan. Azak, zea, jendiri mateko. Razionamendua karri 'ta razionatua azak berde berdik. Mekauenlaletxe! 'Ta listiña kajetan jartzen aitzen giñan 'ta zembat zen. Emakumik gehiyo zin gizasemia biño. Aza berdik! Joe! Errenteitik ate 'ta itxea ordun kartzen nittun bizikletan, bizikle... Kartzen nittun. Geo moniato 're bai. Joe, bestia! Moniato!

- Hoi ez nittun nik izautu han. Moniato 'ta Aza (...)

- Ez al zenun izautu moniato? Joe! Nik zue lehengusua, Lutxi, zen guekin aitzen zena eta (...) Etxeberrikua. 'Ta harren partik eta hain itxea jun 'ta hain moniatuk eta denak karri 'ta. Gosia! Mekauenlaletxe! Ordun pasa genittun guk errak!

- (...)

- Moniato hoi patata bezela erre 'ta...

- Gozuagua, ezta?

- Gozua. Pata erria jan ez dun jendia 're. Labian jarri taka 'ta labiak kriston berua iukitzen zuten 'ta guk burniyan gaiñin jarri 'ta istanteko erria patata! Patata erria jan.

- Ogiya falta.

- Bai. Biño patata erria jateko 're zokoa jon 'ta jan ber zen, ikusten bazizuten!

- Biño oaingo jana biño garbiyo!

- Hoixe!

- Patata erria 'ta oain jaten duguna ez dakigu!

- Hoi bai. Gehiyo bai, biño...

- Haik naturalo dia, zin!

- (...)

- Gaiña askotan izango zuten harra barruan, ezta?

- Rellenuk.

- Betiak, patata betiak!

- Patata betia!

- Bai, ordun harrak eta ez zin beituko, dena barrena! Haik 'e goxuak!

6. Lan arriskutsuak

- **Erref**: OIA-039/011
- **Iraupena**: 0:03:31. **Hasi**: 00:28:29. **Bukatu**: 00:32:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza

Laburpena:
Hain soldata txikiak zituzten lantegietan, handik kanpora ere lanean aritu behar izaten zuten gehienek. Rufino, Esmalteriako txanda bukatu eta gero, Errenteriako Udalarentzat lanean aritzen zen. Viteri kaleko tranbia txuriarentzako bidea egiten aritu zen. Garai hartan ez zegoen makinarik eta dena eskuz egin behar zen. Pikotxa aski ederki ezagutzen dute garai hartakoek. Arrisku handiko lanak izaten ziren, gainera.

Transkripzioa
- 'Ta geo, lante... Lanteitik aparte baserri... Zuek baserri, Olalde baserri koxkorra zen? 'O...

- Lanteitik ate 'ta Errenteiko ayuntamentuntzat, zeak, aittu izandu ga gu, guaintiak mantakin horrek 'ta hoikin 'ta. Zeiñentzako ez zekitenak. Kalle Biteiko trambia dena guk ate, tranbi biria guk ate genun zeatik hasi...

- Honek ez du izautuko hua, trambire hua. Trambire txuiy hua?

- Ez, ez.

- Bai, nik izautu dut.

- Honek deus ez.

- Joe! Biño hasi hauzko puntatik, Kalle Bitein hauzko puntatik hasi 'ta bueltan kalle Biteri dena, Alamendan bueltan. 'Ta pikotxakin guk ate genun hoa. 'Ta joe, galipota txarra da hausteko zen, e!

- Hormioiyan tipoa!

- Joe! Ho denak lertu odoletan! Pikotxa 'ta zeakin 'ta pikotxakin golpia oker xamar ematen bazen, zapa, pikotxa hautxi! 'Ta metro kontun adokiñin ongi atetzen giñala. Adokiñak 'ta juntatik rak, rak rak hondarra azpikua ate 'ta, harta jornada pixkat, biño joe, galipota tokatzen zenin! Ordua hiru peztan 'ta. Kastañon hasi beko puntatik 'ta goiko muturreiño urantzako zea, aska, aska atetzen. Fabriikatik ate 'ta geo.

- 'Ta hua zeiñentzat aitzen ziñazten, ayuntamentuntzat?

- Ayuntamentuntzat. Urkiantzat in genun Kastañon hamaika metro 'ta erdi. Zulua goitik betti ura harrapatzeko. 'Ta goiyan, goiko punta puntan zen 'ta goiyan tambor bat jarriya. Tambor hartan kablia goitik betti 'ta zu atzetik benga. Jonta osaba, txandaka, bat bian eun batin 'ta hurrengun bestia. Kan, kan, kan hasi 'ta bian ai zenak bai deskuitzen baza zaparra errak! Balantzaka, xestua balantzaka hasi 'ta bazterra jotzen zunin harriya dena goitik betti! 'Ta jo!

- Ordun ez baizen kaskoik ibiltzen!

- Deus ez.'Ta, biño, txarrena izaten genun, ura asko jaiotzen zen, 'ta illunabarrin jon 'ta bi metro t'erdi 'ro igual zolua dena urez betia. 'Ta eskailletati zintzilik baldia bete batek 'ta bestik ta, ta, ta. Hua, hua hustutzen ordu bete biño gehiyo, bomba txar bat ez jartzetikan! 'Ta tokatu giñen hamar metro t'erdi. Ura biño beruo zulatua guk, geo ura bazterretikan eta hua ezin billatuik eta. Inaxio Urkia ehizira jon 'ta hua ehiziyan zen demboan, andria jon nola ai giñan ikusten 'ta beko zolo hura ikusi 'ta ate giñan demboan: "ez gehiyo honea torri, e! Ne andr, o gizona ehizitik torri artin!" Peligrun ai giñala 'ta ne gizona lanin, oi, ehiziyan 'ta gu peligro hautan 'ta gu jon ez. Bi eun pasatzen baldin bazenittun beldurra maten zigun geo jotia! 'Ta hua ehiziyan zon dembuan gu gehiyo jon ez! Han geldittu zen zolua, 'ta iñork bukatu ez.

- Eta han pasa zenittuzten orduak?

- E?

- Han pasa zenittuzten orduak?

- Haik kobrat... Patuko 'izkiunn, bestela... Joe! Biño, han 'e ze iraazten...

- Biño ze peligrun aitzen ziñazten lanin, e!

- E?

- Ze peligrun aitzen zen len lanin, e!

- Bueno, oain 're ieltseruk 'ta 're bai biño...

7. Bizikleta: garraio eta afizio

- **Erref**: OIA-039/014
- **Iraupena**: 0:03:23. **Hasi**: 00:37:40. **Bukatu**: 00:41:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:
Rufinok lan asko egiten zuen, baina bizikleta karreretan ateratzeko astia hartzen zuen. Behin, xanistebanetako karrera irabazi zuen. Beste behin, Mitxelenak bost minutuko bentaja eman zuen, eta hala ere, denak harrapatu, eskapo egin eta irabazi egin zuela kontatzen du. Garai hartan denak bizikletan joaten ziren lanera. Bidean, neskak zirikatzeko beta hartzen zuten. HIKA.

Transkripzioa
- Etxebeste 're bai.

- Zeiñ anai zin? Kampotik karri zittuztenak haik? 'Ta Mitxelenak ordun in zun bos minutu bentaja man. Pako Mitxelenak minutu... bos minutu bentaja man bestiri.. Eta, zeiñ kristo anai zin karri zittuztenak launtzeko... Kampun biltzen zinak elkarrekin 'ta. Mitxelenak bos minutu kendu 'ta lurritan harrapatu zula. 'Ta Mitxelena, tak, geldittu zen be onduan 'ta. Launak giñan Mitxelena 'ta gu, 'ta Mitxelenak nei: "Jarriy hai atzin, nik martxa 'it aurrea." "sei zak, sei zak!" Harrek seittun harrapatu du bos minutu manta, harrapatu denak eta...

- Béak eskapo in geo!

- Béak eskapo in. Nei esan zin: "segi zak!" Eta bai, aiba dio! Aurreko eunetik pikotxa 'ta palin txiki arraiyo iña! Erra entrenamentua itten genun guk! Joe!

- Entrenatu 'ta lanea!

- Buelta Frantziko pelotoiya miño haundiyuo in Errentira!

- Bizikletan? Joe, hoi pilla joten zin!

- Hoi pilla joten zin!

- Gu erori izandu giñala betzi! Matxaiñeneku hortan! Kauen... Ordun 'e izaten zela...

- Bai, halako biria 're.

- Biria? Bizkarretik helduta elkarrei. Elkarrei heldu 'ta denak jarriyak giñan 'ta bat trabatu 'ta tr...! Denak lurrea jota! Pedala hautsi nei! (...)Nula! (...) Ui! Joe! Ordun zin kontukin! Kubiertak hautsitzen baldin bazen, entreatu in ber 'ta... Kubierta 'ta kamara berriya jartzeko. Zaarrak entreatu! Ni ibilli izandu nitzan...

- 'Ta geo berriyak errealo?

- Ni ibilli izandu nitzala kubiertan barrena, kortxua jarrita. Kortxukin barrena jarrita. Hogeita hamahiru kortxo uste 'ut sartzen zila. Joe! ebiya itten zunin, kortxua beratzen zen ta ordun ongi, biño gortzen zen demboan, mekauenlaputa, ipurdiko errak bai miñ erra! Kortxua gortzen zenin, ta ta ta ta! Joe! Gorriyak ikusi dittugu guk

'e! Jo!

- Bai, 'ta geo kubierta atetzen baziyon, bollua, beste zea bat kapa loixio bat jarri barrendik petakua. Jo ibilli in ber da hola, e!

- Kamarak entreatzeko eun batin bi kamara elkarri lotuta hola jarriyak, lazua inta. 'Ta baguz Errenteira lanea 'ta. Nunguk zin kargaderoko atzi hortan bi ahizpa 'ro moja zeatu zinak. Bi neska. 'Ta Xegundo Xixtiyo, Benantxo Torrekua 'ta hiru 'ro bagiñala 'ta kamara hartu bi launek eta bat neskan ayekatik hartu 'ta bestia beste ayekatik 'ta bi neskak kamarakin hartu aurrian 'ta utzi in ber kamara azkenin! 'Ta utzi 'ta haik kargaderoko gaiñea bota kamarak gui. 'Ta geo kamarak billa, berriz 'e atzetik iyo, kargaderua itxiya atzetik eta. Joe! Alukeiya!

- Bixkarrondokuk.

- Bixkarrondokuk bai.

- Kargaderua... Kargaderua ez dakit hala deitzen yoten... Kargaderua zea da... Nola Gabierrota? Diputaziyun zea? Hoi da kargaderua.

- Horrea, hor 'ta horrea bota neskak, han gaiñin bizi zinak baizin neskak.

8. Trenbidea

- **Erref**: OIA-039/015
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:41:03. **Bukatu**: 00:42:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:
Garai batean Zorrolako trena zena eta gero Karrikako harrobitik jaisten ziren bagoiak Olalde ondotik pasatzen ziren. Rufinoren arrebari trenak behatzak moztu zizkion.

Transkripzioa
- Han gaiñin bizi zinak baizin neskak!

- Zuek toritzen hasi hairi, biño azkenin beák toritu!

- Haik hauek toriatu!

- Harrobi hontatik eamaten zuten hara mateila. Trenabidetik... Trenabidia zen e, bagoiakin. Zea, hortik, zea... Kargadorea.

- Ui! Gue itxi(...) beko itxian ondotikan. Horko trenak moztu zizkala ne arrebai bihatzak!

- Bihatzak ez, puntta, ez?

- Beno, jo 'ta moztuak zittun bi 'ro hiru! Bi 'ro hiru moztuak zittun. Trenak itxe ataiyan azpiyan han zea 'ta ume koskorrak jostatzen 'o 'ta. Gerritik harrapatu bazun, igual ingo ziyon.

- Bai, e?

- Trenak eskua harrapatu!

- Ez sumatu trena? 'O ttikiya izaki igual!

- Hua ttikiya!

- 'Ta ondo ondotik pasatzen zen, Olalden ondo ondotik?

- Bai. Txatarra 'ta... Han do txatarreiya zea oaiñ 'ta Olalden biyen tartetik.

- Baratzan ayekatikan.

- Berez hiru metro itxian kantoira. Ez da izango.

- Gutxiyo! Atzeko atia guk esaten geniyona bertan, kontratikan.

9. Errotaberriko arrandegia

- **Erref**: OIA-039/019
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:49:28. **Bukatu**: 00:51:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Altzibarko Errotaberriren ondoan, arrandegia zegoen, eta, arrandegiaren ondoan, errota. Hantxe bizi ziren Rufino eta bere familia. Aita eta bera arrandegian lanean aritzen ziren. Aita bertan gaixotu zen eta bularretik hil zen. Arrandegian sobratzen zena lurpean sartzen zuten.

Transkripzioa
- Oain Pitusa don tokiyan itxe ttiki bat zen. Itxia, errota 'ta gu errotan bizitzen giñanak eta jornala man berrin gau 'ta eun lanin. Jelakin atetzen, ni muti koskorra. Depositтuk hustu 'ta tak tak karri 'ta nik depositтuk bete urakin. Makillakin neurtu goitik zembat neurtzen zun 'ta. Bi laun benga lanin, atta semik eta. Ordun guria in zen zeatik, petxotik jarri 'ta hartatik izorratu zen. 'Ta geo zea "pulmoniyatik hil duk", pulmoniya bai erki!

- Bai pulmoniya 're bai, mantxa...

- Lanin izorratu! Gau 'ta eun lanin! Barkuk baizittuzten beák hoik. Errotaberrikuk eta Olaizola y Madrazo'ro zea, barko... Pareja zutena. 'Ta karo, pareja zeatzen zen demboan arrai benga arrai guziya honea kartzen zuten 'ta hemen beexita jarri. Honoko, Aingeruko ondoko itxe beltz hoik eta guriak txatarreiya dakaten hoitan 'ta. Oain jendik aprobetxatzen 'ttu erki! (ze arrai usai...) saten ziyoten holako peskadillak tripa lertua baldin bazun, kajea 'ta lurrea dena, lurran azpira. Lurra, kriston indarra arraiyak, e! Arrai pilla erra bazin hoitan sartuak. Zapo buruk bai, holakuk! Mekauen! 'Ta geo arto tartin igual zeak zakurrak jun 'ta. Biño pilla erra arraiya! Josus! Hamakin bat kamioika arrai kartzen zuten horrea.

10. Errotaberriko errota zaharra

- **Erref**: OIA-039/021
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:51:10. **Bukatu**: 00:52:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Errotaberriren ondoan, beste errota zegoen, orain Pitusa dagoen tokian. Bertan bizi izandakoa da Rufino. Gero, aitona-amonekin Olalden bizi izan zen. Rufinok bi errotak batera lanean ezagutu zituen. Gero gogoratu ZIN.

Transkripzioa
- 'Ta errota berritik aparte ba al zen beste itxe bat, errota zena?

- Bazterrin, bai.

- Bai, e?

- Oaindik zea da, Pitusa don hortan.

- 'Ta zuek ze san 'zu, han bizi ziñaztela, 'o Olalden?

- Han, han, han. Bueno, gue atta 'ta ttiki... Gaztetan. Nik Makutxon jaiyua izan ber dut, biño geo horrea torri bizitzen, 'ta hor bizittuk. 'Ta ama ate zizu kontuk, nik zazpi urte nittula hilla. 'Ta ordun amonakin 'ta gu, beti. Oi, Errotan hambeste dembo bai, han. 'Ta geo gue atta in zen Aldapakukin ezkondu, bigarren andria zun geo, biño gu haikin ez giñan bizi, gu beti Olalden, beti attonakin 'ta amonakin. Oi! Itxeko paperak itten hor, Olaldeko osaban izenetik ne izeneko... Peritua 'ro zer zen torriya? Eun batin, 'ta sukaldetik beira hola jarri 'ta harrek nei: "hor itxe bat bazen leno." 'Ta nik ez beitu 're in. Ez zela, 'ta ez zela. 'Ta geo neone: " ui la letxe, ni ze aittu naz esaten! Perituk itxia bazela 'ta nik ezetz!" 'Ta neone bertan bizittua, zeatua 'ta ezetz esan eta.

- Aztua zu 're?

- Aztua. Geo gotu zin. " Nik erra san ziot horrei itxeik ez zela errota, Errotaberrikua!" Joe! Bai, bi errota ikusi izandu 'ttut nik han lanin.

- Bai, e?

11. Iturri ugari

- **Erref**: OIA-039/023
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:56:50. **Bukatu**: 00:58:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Olalde inguruan iturburu asko daude. Ur-bilatzailea ekarri izan dute inguruko iturriak bilatzeko. Askok uste dute Pitusak horietako bat hartu zuela, baina Rufinok dio bat ez, bi iturburu daudela Pitusaren barruan.

Transkripzioa
- Hoixe! Dena barrenin hartu zuten. Geo beste itturriya bazen, gue baratzan parea atetzen zena, kriston ura atetzen zen. 'Ta guk han esnia freskatzen 'ta iukitzeko 'ta, toki erra genun. Hoa 're zea karri, Errenteikua, zahori bezela itten zuna...

- Bai, sorgiña.

- Dios! Zein zen hoa? Etxabiguren. Karri 'ta barrenin zolua in, 'ta beste itturriya 're barrenin hartu. Geo nik hola, disputan hasi 'ta san izandu niyon zea batei, lanin ibiltzen zen kastillano batei: "¡Un manantial no, dos! ¡Hay dos manantiales ahí adentro, e! ¡Y ya sé yo donde hay más grande que esos dos!" Itturriya! Bai baita, gehiyo atetzen dena hor itturriya badela!

- Nik ian izandu dut, aski ona bai ura!

- Ura? Hor bestia kristona atetzen dena, zubiya biño goruo dela. Nola Olaldeko zubiya?

- Bai.

- Han goruo Pitusa zea itten duna. (Uka)

- Zubiya leno zen, oaiñ ez!

- Zubiya non da? Oaiñ 'e Olaldeko zubiya han eongo da, e!

- A! Bian, ya bai.

- 'Ta Torreneko baratzan 'ta zea hartan, joe, ura! Atzen da han, mekauen! Holako zulo batin bor, bor, bor...

- Bai, e?

- Pilla erra bai, bai. Errekan e! Errekan zean atetzen da.

12. Errotaberriko iturria

- **Erref**: OIA-039/025
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 01:00:56. **Bukatu**: 01:02:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Errotaberriko iturria, gaur egun Pitusa fabrikaren barruan dagoena, oso ur onekoa omen zen. Altzibartarrek bertatik eramaten zuten edateko ura. Gero Aranburuko iturrira joaten zen jendea.

Transkripzioa
- Zea, itturriy hoik bai al zuten izena? Pitusak hartu zittun itturriy hoik 'ta... Zuek bai, deitzen al zeniyoten...

- Beti Errotaberriko itturriya guk. Errotaberriko itturriya.

- 'Ta geo hor, e... Embotillatzen zittuzten 'ta horko urakin ingo zuten?

- Oi! Hoixe! Hoixe!

- Negoziyua!

- Gaiña debalde 'ta aski ur ona bai! Ez? Debalde! Haik dena eosiko zuten, ura 'ta dena!

- Kriston depositua in zuten, hau bezela. Sukaldia biño... ez dakit zembat izango zittun, biño, ni Pitusan aittua bainitzan pixkatin. Urtebete 'ro pasa nun lanin. 'Ta hoeita... Ez dakit zembat metro kubiko zortzirehun 'o atetzen zin.

- Pilla!

- Hoixe!

- Klaro! Altzibar guztiya hortik hartzen bazun,

- Eateko jendik eamaten zun. Bestela ez, biño, eateko. Jon, torri 'ta itturri freskua! Geo jendia dena... Aramburuko itturrira amakin bat buelta in du jendik!

- Hamakiña...

- 'Ta oaiñ berriz, hora zer do tapatua?

- Ez baitakit nik.

- Uste 'ut galduxea dola hua 're, e!

- Hor pintxe eon nitzanin, horma baldin bazen, (...) goizero, lembiziko barrika koskor bat, barrika e

- Parrilla. 'O... Barrilla!

- Barrilla! Hartu bizkarrin 'ta...

13. Mandazaina eta ama-alabak

- **Erref**: OIA-040/003
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:13:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Rufinok gertakari xelebre asko dakizki. Honetan, ama-alabekin apopilo zegoen mandazainarena kontatu digu.

14. Adarra jotzen

- **Erref**: OIA-040/005
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:19:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Ameriketan 14 urte egondakoa, konfesatzera joan eta apaiza harritu egin zen hainbeste urtean konfesatu ez zelako. Ameriketatik etorritako hark egindako adar jotzea.

15. Adarra jotzeko makina

- **Erref**: OIA-040/007
- **Iraupena**: 0:00:25. **Hasi**: 00:19:25. **Bukatu**: 00:19:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Kontakizun barregarria: Ameriketako asmakizunak baino hobeak omen ziren hemengoak.

16. Karlisten eskola

- **Erref**: OIA-040/009
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:22:20. **Bukatu**: 00:22:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:
Karlistei buruzko esaera: karlistek ekarri zuten eskola, lepotik behera eskapularioa eta ipurdi gainean pistola.

17. Apaizei, kanta

- **Erref**: OIA-040/011
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:26:30. **Bukatu**: 00:27:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Garai batean, apaizek botere handia zuten. Ez zen arraroa beraiei jarritako kantak egotea. Rufinok bat kantatu digu.

18. Sermoia

- **Erref**: OIA-040/013
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:29:30. **Bukatu**: 00:31:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Luistarrei apaizak emandako sermoia. Gaztetan ibili behar zen neskatan, ez zahartuta, fundamenturik gabe. Sagar zaharrak udazkenean lorea egiten du, baina batere balio ez duena.

19. Kazkazuri eta apaiza

- **Erref**: OIA-040/015
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:37:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Apaiz batek sermoiak era bitxian ematen zituen, erdi bertsoka. Kazkazuri bertsolaria eztarri-soinuka hasten omen zen apaiz hura sermoia botatzen hasi orduko. Sermoiaren zati bat bota du Rufinok: "Oiartzungo mutil gazteek gauetan egiten dituzten akzioak...".

20. Kriskitinak

- **Erref**: OIA-040/017
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:38:20. **Bukatu**: 00:39:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:
Garai batean, Nafarroako San Juan iturrira jende asko joaten zen Oiartzundik. Jai giroan izaten zen, musika joz. Rufinok gogoan du emakume bat bazela kriskitinak jotzen trebea zena.

21. Festetara, bizikletan

- **Erref**: OIA-040/019
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:41:00. **Bukatu**: 00:42:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:
Goizuetako jaietara bizikletan joan izan dira eta baita Bentaberriko bilerara ere. Itzuleran istripua izan zuten bizikletarekin.

22. Beorlegiri bertsoa

- **Erref**: OIA-040/021
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:52:20. **Bukatu**: 00:55:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerra hasi zenean, Olaldetik Goikoetxera joan ziren. Beorlegi ezagutu zuen han. Berari jarritako bertsoa bota du. Goikoetxeko emakumea familia esperoan zegoen. Baserriz baserri ibili ondoren, Zaldinen eduki zuen haurra.

23. Erreketeak erreketeei tiroka

- **Erref**: OIA-040/022
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:55:40. **Bukatu**: 00:57:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:
Olaldekoek uste zuten Karrikatik jaitsiko zirela erreketeak. Berez, Goikoetxera joan ziren ihesi, baina tropak Biraitara iritsi zirenean, Ergoien aldera hartu zuten eta Goikoetxetik sartu ziren. Beraiengandik ihesi hasi eta beraiengana joan ia. Arraskularretik Goikoetxera erreketeak erreketeei tiroka ibili ziren, deskuidatuta. Errepublikanoak nor ziren ez zekiten; gorriak esaten zieten denei.

24. Euskara, libre

- **Erref**: OIA-041/002
- **Iraupena**: 0:00:30. **Hasi**: 00:06:40. **Bukatu**: 00:07:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Rufino 13 urtera arte ibili zen eskolan, gerra hasi aurretik, eta gogoan du garai hartan euskara libre zela eskolan.

25. Linboa

- **Erref**: OIA-041/004
- **Iraupena**: 0:00:20. **Hasi**: 00:12:30. **Bukatu**: 00:12:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Haurra jaio eta lehenbailehen bataiatu behar izaten zen. Izan ere, Elizaren arabera, bataiatu gabeko haurra linbora joaten zen.

26. Bertsopaperak

- **Erref**: OIA-041/010
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:45:30. **Bukatu**: 00:48:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Rufino bertsozalea da, eta bere osaba ere halaxe zen; harrapatzen zituen bertsopaper guztiak erosten zituen. Besamotz bat etortzen zen kalera bertsopaperak saltzera; lehendabizi kantatu egiten zituen eta gero saltzen hasi. Bertso bat kantatu digu.

27. Kazkazuriren ilobak

- **Erref**: OIA-041/011
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:48:00. **Bukatu**: 00:50:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Rufinoren osabak bertsolaria zuen osaba: Kazkazuri. Ameriketatik Kazkazurik jarritako bertso ezagunak aipatu ditu, baita zati bat kantatu ere. Bertsolari batzuk aipatu ditu: Uztapide, Frantsesa...

28. Bertsolari franko

- **Erref**: OIA-041/013
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:53:40. **Bukatu**: 00:54:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Rufino gogoratzen da behin Altzibarko Soteronen Uztapide, Basarri, Sailpuruko Balentin eta Krisostimo elkartu zirela. Gaupasa eginda zeuden, eta haiek bertsoak, noski.

29. Gaztelaniaz jakin ez

- **Erref**: OIA-041/015
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 01:00:00. **Bukatu**: 01:01:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Behin epaitegira joan zen Rufino eta han gaztelaniaz ez zekien herritar bat zegoen. Bera Errenterian lanean aritua izaki, hobeto moldatzen zen eta epaileak esaten zuena itzultzen aritu zen emakume hari. Garai hartan asko ziren erdara ez zekitenak.

30. 'Pello Errota' eta 'Txirrita'

- **Erref**: OIA-042/001
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Pello Errota eta Txirritaren arteko bi bertso bota dizkigu Rufinok. Txirritak egindako apustu baten berri ere eman digu.

31. Inozentekeria

- **Erref**: OIA-042/003
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:06:10. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Inozente egunean, mutil koskorrek egiten zutena: bi errealekoa iltzearekin lurrean josita jartzen zuten.

32. Arrastorik gabeko sorginak

- **Erref**: OIA-042/005

- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:07:55. **Bukatu**: 00:08:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Rufinori berari ez zaio sorginik agertu, baina bere aitari bai. Behor saila ikusi; eta, hurrengo egunean, arrastorik ez. Txerri-ama umeekin ikusi, kolpea tira eta harrapatu ez.

33. Sorginak bagarela eta ez garela

- **Erref**: OIA-042/007
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:09:00. **Bukatu**: 00:09:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:
Rufinok entzun izan du: "Sorgiñak, hainbeste ez gala, miño hoinbeste bagattuk".

34. Kazkazuri eta piztiak

- **Erref**: OIA-042/009
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:14:50. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Oiartzungo familia ezagun batzuk izengoitia jaso dute, belaunaldiz belaunaldi. Kazkazuri joan da lanera eta nagusiak askan sartzeko agindu. Hark ezetz, piztiz beteta zegoela eta: han lanean ariki otsotar, azeritar eta intxixutar bat.

35. Frantsesak jarriak

- **Erref**: OIA-046/001
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bertso-kantari, memoriaz. Lehendabizikoak ez dizkiegu jaso. Eskuetan daukan

papertxoan, lehendabiziko bertsoaren hasiera bakarrik dauka idatzita. Hura leitu eta bertso guztiak ateratzen zaizkio, eta gero dio memoria txartzen ari zaiola. Hiru bertso bota ditu, anonimoak. Bertso batean esaten du Ezpeletako batek jarriak direla. Rufinok esaten du: "Frantsesak jarriak". Osabari ikasi zizkion.

36. Modernitatea

- **Erref**: OIA-046/003
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:07:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Zortzi bertso abestu ditu. Buruz ari da. Gaia: modernitatea. Ez daki norenak diren. 6. pasartean aipatuko du behin bertsolari batzuen aurrean abestu zituela eta haiek ere ez zekitela norenak ziren.

37. Neskazaharrari

- **Erref**: OIA-046/005
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:07:40. **Bukatu**: 00:10:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Lau bertso bota ditu buruz. Frantsesarenak direla dio; doinu berezia iruditu zait. Jarraian, beste bertso bat bota du, hori ere buruz, neskazahar bati jarria. Ez daki norena den.

38. Egile ezezaguna I

- **Erref**: OIA-046/006
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:10:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Behin, bertsolari batzuen aurrean abestu zituen 3. pasarteko bertsoak, modernitateari buruzkoak. Eta haiek ere ez zekiten norenak ziren.

39. Egile ezezaguna II

- **Erref**: OIA-046/007
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:10:50. **Bukatu**: 00:12:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Edariari buruzko hiru bertso abestu ditu buruz. Ez daki norenak diren.

40. Mendaro Txirristarenak

- **Erref**: OIA-046/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:12:10. **Bukatu**: 00:14:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Bi bertso abestu ditu, horiek ere buruz. "Bertsuak jartzera nua neskatxa morena bateri..." Doinu berezia. Mendaro Txirristak jarriak izango direla dio.

41. Bertsopaperak

- **Erref**: OIA-046/009
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:14:00. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Rufinoren osaba oso bertsozalea zen, makina bat bertsopaper erosia, Rufinok eskuetan darabilzkien horiek berak. Besamotz batek saltzen zituen kalean eta kantatu. Rufinok behin leitzea nahikoa izaten zuen buruz ikasteko.

42. Konfesatzen

- **Erref**: OIA-046/010
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:16:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Rufinok, bertsoak ez ezik, gertakari xelebre pila ederra ere badakizki. Hona hemen neska bati zer gertatu zitzaion konfesatzera joandakoan.

43. Ganadu bila

- **Erref**: OIA-046/011
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:16:30. **Bukatu**: 00:17:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Xelebrekeria asko dakizki Rufinok. Hara zer gertatu zitzaion feriara gehiegi joaten zen senarrari.

44. Jaimitorena

- **Erref**: OIA-046/012
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:17:50. **Bukatu**: 00:18:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Jaimitoren txistea. Gaztelaniaz da, baina hasieran euskaraz hasi da eta entzutekoa da.

45. Goizuetarrak Oiartzunen

- **Erref**: OIA-046/013
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:18:30. **Bukatu**: 00:20:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Goizuetarrek xelebre fama daukate Oiartzunen. Zerbaitengatik izango da... Gertaera hau aditu besterik ez dago, beren umoreaz jabetzeko: goizuetarrak Oiartzunera intsentsu eske etorri zirenekoa.

46. Xarmangarria zera

- **Erref**: OIA-046/014
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:23:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Xarmangarria zera...' bertso ezagunak kantari, guztira 4 abestu ditu. Egile ezezaguna dute (?)

47. 'Txirrita'renak

- **Erref**: OIA-046/016

- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:25:50. **Bukatu**: 00:29:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Neskazahar gazteari bertsoak, Txirritak jarriak. Paperetik irakurrita abestu ditu.

48. 'Txirrita'ri

- **Erref**: OIA-046/017
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:29:10. **Bukatu**: 00:30:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Txirritari norbaitek botatako bertsoa.

49. Bertsolariak nonahi

- **Erref**: OIA-046/018
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:30:30. **Bukatu**: 00:31:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Lehen, plazatan ez zen bertsorik egiten; sagardotegietan-eta, bai. Oiartzunen gutxiena uste zena zen bertsolaria. Rufino gogoratzen da behin Tomasen Bordako Balentin, Krisostimo, Uztapide eta Basarri elkartu zirela Soteronen. Jaungoikoarenak bertsoa bota zuen, eta Uztapidek "hemen nonahitik ateratzen dituk bertsolariak".

50. Otañorenak

- **Erref**: OIA-046/020
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:32:50. **Bukatu**: 00:34:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Otañoren bertsoak kantatu ditu bertsopaperatik, jaioterriari, Baztani, jarriak.

51. Iparragirrerenak

- **Erref**: OIA-046/021
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:34:30. **Bukatu**: 00:36:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Iparragirreren bertso ezagunak 'Kantari euskalduna'. Bertsopaperean ditu.

52. 'Txirrita'renak

- **Erref**: OIA-046/022
- **Iraupena**: 0:07:30. **Hasi**: 00:36:10. **Bukatu**: 00:43:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Ameriketako bizitza bertsoak, Txirritak jarriak. 18 bertso dira, eta ia denak kantatu ditu.

53. 'Basarri'renak

- **Erref**: OIA-046/024
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:48:30. **Bukatu**: 00:50:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Osabak koaderno batean idatzita utzi zizkion bertsoen izenburuak. Basarriren bertso batzuk kantatu ditu, osabak zekizkienak. Basarrik bere liburuetan argitaratu gabeak.

54. 1956ko jelateari jarriak

- **Erref**: OIA-046/026
- **Iraupena**: 0:06:10. **Hasi**: 00:50:50. **Bukatu**: 00:57:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
1956an jelate izugarria egon zen. Ibarguenek jarritako bertsoak kantatu ditu.

55. Jelatan epelak esaten

- **Erref**: OIA-046/028
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:57:30. **Bukatu**: 00:59:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
1956ko jelate ahaztezin hartan gertatutakoa. Gizona lurrean, elurretan ezin altxaturik, eta semeaz gaizki-esaka.

56. Egile ezezaguna

- **Erref**: OIA-047/001
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Edariari jarritako bertsoak. Buruz ari da. Gero, irakurrita. Ez dakigu norenak diren. Zortzi bertso dira eta denak kantatu ditu.

57. 'Nere sentimentua'

- **Erref**: OIA-047/002
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:06:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Antonio Urbietak Kazkazuri anaiari Ameriketatik jarritako bertso ezagunak kantatu dizkigu Rufinok: 'Nere sentimentua'.

58. Ollokiren bertsoak

- **Erref**: OIA-047/007
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:19:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Ollokiren bertsoak. 13 bertso morroi kontuekin. Normalean, baserriaren izena hartzen du pertsonak, baina kasu honetan, Ollokine baserriak bertakoengandik zuen jasoa izena. Izan ere, bertakoei Olloki deitzen zieten eta aita-semeak bertsolariak ziren. Maritxu Sagardiarekin egindako elkarrizketan horixe bera azaldu zigun, Olloki hauen iloba izaki bera.

59. 'Xenpelar'renak?

- **Erref**: OIA-047/009
- **Iraupena**: 0:07:00. **Hasi**: 00:23:00. **Bukatu**: 00:30:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Azken juizioko bertsoak. 18 bertso dira eta denak abestu dizkigu. Ez du jartzen norenak diren. Xenpelarrenak al dira?

60. Altzibarko dolareak

- **Erref**: OIA-047/011
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:32:30. **Bukatu**: 00:34:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Altzibarko dolareak: Martinmotzene, Peruene, Soterone, Aduriz, Iruinerrene, Herreronin... Olaldekoek, garlirik ez eta bi karga eta erdiko barrika trenbidetik eramaten zuten, Soteronera.

61. Ezezagunak

- **Erref**: OIA-047/013
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:36:40. **Bukatu**: 00:41:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:
Hiru neskazaharrei jarritako 10 bertso. Lehendabizi errezitatuz eta ondoren kantari. Ezezagunak.

62. Bertso onak eta txarrak

- **Erref**: OIA-047/014
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:41:00. **Bukatu**: 00:41:50

• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Aisia » Kultura » Bertsolaritza
• Kultura » Aisia » Hedabideak » Telebista
• Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:
Bertsolaritzari buruzko iritzia: bertsopaperetan hainbeste bertso eder leitu ondoren, telebistan-eta botatzen dituztenak ezin direla koparatu.

63. Ezezagunak

• **Erref**: OIA-047/016
• **Iraupena**: 0:09:20. **Hasi**: 00:44:50. **Bukatu**: 00:54:10
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
• Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Garai batean, edozer gauza gertatzen bazen, segituan bertsoak jartzen ziren. Oiartzungo gazte batek kontakatilu bati jarritako 20 bertso kantatu dizkigu Rufinok. Bertsoan agertzen da egilea.

64. Zapiraintarrak

• **Erref**: OIA-048/001
• **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:04:00
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
• Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:
Zapirainek ezkontzari buruz jarritako 8 bertso (lehendabizikoa ez dugu osorik grabatu). Zapiraintarren gainean aritu zaigu Rufino. Bederatzi seme zituen eta hirurekin gelditu zen, besteak gerran galduta. Semeak kartzelatik aitari jarritako bertsoak; bat kantatu du.

65. 'Lexoti'ren bertsoak

• **Erref**: OIA-048/003
• **Iraupena**: 0:06:20. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:13:20
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Aisia » Kirola » Herri-kirolak
• Aisia » Kultura » Bertsolaritza
• Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak

Laburpena:
Jose Luis Lekuona Lexoti bertsolariaren 12 bertso kantatu ditu. Jose Mari Iriarterekin egindako apustu baten ondotik jarritakoak. Jose Mari Iriarte Rufinoren lehengusua zen.

66. Aitagure berezia

- **Erref**: OIA-048/007
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:23:50. **Bukatu**: 00:26:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Errezo berezia erakutsi digu Rufinok: Francori zuzendutako aitagurea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com